

@@@1145/2015 EBAZPENA, maiatzaren 28ko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten osasun teknikari laguntzaileen lanbide taldeko erizaintzako laguntzaileen kategorian (erizaintzako laguntzaileen, Osasun Mentaleko erizaintzako laguntzaileen eta Osasun Mentaleko monitoreen lanpostu funtzionalak) lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onetsi dira. @@@

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 28ko 1135/2015 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko 2014an eta 2015ean deitu diren hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi dira.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da kategoria bakoitzeko destinoei buruzko deialdia arautuko duten oinarri espezifikoak argitaratzea

Horregatik, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Osasun zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak eta Osakidetza Ente Publikoko Estatu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoarekin eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

#### EBATZI DUT:

Lehenengo.- Oinarri hauen xede diren hautaketa-probak deitza.

Bigarrena.- Erizaintzako laguntzaileen kategorian (erizaintzako laguntzaileen, Osasun Mentaleko erizaintzako laguntzaileen eta Osasun Mentaleko monitoreen lanpostu funtzionalak) lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onestea, I. eranskinean agertzen direnak. Aipatutako kategoria osasun teknikari laguntzaileen lanbide taldekoa da, eta destinoak Osakidetzako-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetakoak izango dira.


Hirugarrena.- Ebazpen honekin batera agertzen den II. eranskinean eskainitako destinoen zerrenda onestea.

Laugarrena.- Merezimenduen baremoa onestea, ebazpen honen III. eranskinean dagoena.

Bosgarrena.- Dagokion gai zerrenda onestea, ebazpen honen IV. eranskinean dagoena.

Seigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekursoa jar daiteke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epearen barruan, ebaazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala ezartzen baitute lege eta dekretu hauek: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea; Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea eta Osakidetzaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko maiatzaren 28an.



Osakidetza-Euskal-osasun-zerbitzuko-zuzendari nagusia.  
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ

## I. ERANSKINA

ERIZAINTZAKO LAGUNTZAILEEN KATEGORIAN (ERIZAINTZAKO LAGUNTZAILEEN, OSASUN MENTALEKO ERIZAINTZAKO LAGUNTZAILEEN ETA OSASUN MENTALEKO MONITOREEN LANPOSTU FUNTZIONALAK) OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAN LOTURA ESTATUTARIO FINKOA LORTZEKO HAUTAKETA-PROZESA ARAUTUKO DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK. AIPATUTAKO KATEGORIA OSASUN TEKNIKARI LAGUNTZAILEEN LANBIDE TALDEKO DA, ETA DESTINOAK OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOETAKO ERAKUNDEETAKOAK IZANGO DIRA.

### 1.- DEIALDI HONETAN ESKAINTZEN DIREN DESTINOAK

1.1.- Deialdi honen xede izango dira erizaintzako laguntzaileen kategoriako (erizaintzako laguntzaileen, Osasun Mentaleko erizaintzako laguntzaileen eta Osasun Mentaleko monitoreen lanpostu funtzionalak) destinoak. Aipatutako kategoria osasun teknikari laguntzaileen lanbide taldekoa da, eta destinoak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetakoak izango dira, II. eranskinean bilduak.

1.2.- Deitutako destinoen % 7 gordeko dira desgaitasuna duten langileek betetzeko, oinarrirako orokorrean 1.3 oinarrian ezarritako banaketaren arabera. Horiek II. eranskinean adierazi dira.

### 2.- IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Izangaien ebatzen honetan arautzen den deialdian parte har dezaten, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean oinarrirako orokorretan eskatzen diren baldintzez gain, beste hauetako bete beharko dituzte, oinarrirako orokorretan jasotzen diren salbuespenak izan ezik, eta, hala bada, destinoaz jabetu arte mantendu behar dituzte:

a) Hurrengo tituluak edukitzea edo lortzeko moduan egotea: Erizaintzako zaintza osagarrien teknikarien titula edo baliokidea, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandakoak, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinak ezarritakoaren arabera.

b) Edozein kasutan ere, lortu nahi den lanpostuaren baldintzak bete behar dira, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak ezarritakoaren arabera eta indarrean dagoen araudiak ezarritako beste edozeinen arabera.

c) Inskripzio-eskubide hauetako ordainduta izatea eskabideak aurkezteko epearen barruan, eskainitako destinoen titulazio-taldearen arabera:

C2 taldea (antzinako D taldea): 15 euro.

### 3.- OPOSIZIO-LEHIAKETAREN NONDIK NORAKOA

#### 3.1.- Oposizioaldia

Epaimahaiaiari dagokio probaren edukia eta iraupena zehaztea. Galdelegi bati idatziz erantzun beharko zaio, ematen den gehieneko denboraren barruan, eta galderak gai zerrenda orokorrari eta gai zerrenda komunari lotutako IV. eranskinean jasotako gaiei buruzkoak izango dira.

Era berean, aipatutako eranskinean bibliografia ere sartuko da proba prestatzeko.

3.2.- Oinarri orokoren 14. oinarrian ezarritako puntuazio hurrenkeraren arabera izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren, I. eranskinean agertzen diren izangaien honako dokumentu hauen fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute, baita 14.2 oinarrian aipatzen den dokumentazioa ere:

- Ondoko agirion fotokopia konpultsatua edo notarioaren testigantza: Erizaintzako zaintza osagarrien teknikarien titulua edo baliokidea, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandakoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinak ezarritakoaren arabera.

### 3.3.- Lehiaketaldia

Egiaztatutako merezimenduak III. eranskineko merezimenduen baremoaren arabera balioztatuko dira, oinarri orokretan ezarritako irizpideen arabera.

## II. ERANSKINA

### DESTINOEN ZERRENDA. KATEGORIA: ERIZAINTZAKO LAGUNTZAILEA

Osakidetzako zuzendari nagusiaren maiatzaren 28ko 1135/2015 Ebazpenak onetsitako oinarri orokoren 1. oinarrian ezarritakoaren arabera, honako destino hauek deitu dira:

- Barne-sustapeneko txandaren deialdia: 122 destino

Sarbide orokorra: 114

Desgaitasuna duten langileentzako erreserba-kupoa: 8

Adimen-desgaitasuna dutenentzako erreserba-kupoa: 3

Bestelako desgaitasuna dutenentzako erreserba-kupoa: 5

- Txanda irekiaren deialdia: 70 destino

Sarbide orokorra: 65

Desgaitasuna duten langileentzako erreserba-kupoa: 5

Adimen-desgaitasuna dutenentzako erreserba-kupoa: 3

Bestelako desgaitasuna dutenentzako erreserba-kupoa: 2

Adimen-desgaitasuna duten langileentzako destinoak hautaketa-prozesua gainditzen duten izangai nahikorik ez egoteagatik betetzen ez badira, destino horiek desgaitasuna duten langileentzako erreserba-kupora gehituko dira.

Desgaitasuna duten langileentzako destinoak hautaketa-prozesua gainditzen duten izangai nahikorik ez egoteagatik betetzen ez badira, destino horiek dagokion txandako (barne-sustapena edo txanda irekia) sarbide orokorreko lanpostuetara gehituko dira.

2. oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdi honen xede diren zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoak hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratzean zehaztuko dira.

### III. ERANSKINA

#### OSASUN TEKNIKARI LAGUNTZAILEEN LANBIDE TALDEKO ERIZAINTZAKO LAGUNTZAILEEN KATEGORIAREN MEREZIMENDUEN BAREMOA

1) LAN ESPERIENTZIA: 55 puntu, gehienez.

Eskabideak aurkezteko azken egunera arte izangaien aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Zenbaketa osoa lan egindako egun naturaletan oinarritura egingo da, eta baztertu egingo dira hilabetetik beherako soberakinak. Hilabetea osatzeko, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da.

1.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko, Gizarte Segurantzako eta autonomia-erkidegoetako osasun zerbitzuetako erakundeetan, edozein herri administraziotan, baita Europar Batasuneko beste estatuetako sare publikoko zerbitzu sanitarioetan ere, erizaintzako laguntzaile gisa lan egindako hilabete bakotze: 0,20 puntu.

Barne-sustapeneko txandan lehiatzen direnei honela zenbatuko zaizkie aurretiko zerbitzuak:

- a) E taldean eskainitako zerbitzuak: 0,07 puntu hilabete bakotze.
- b) D taldean eskainitako zerbitzuak: 0,11 puntu hilabete bakotze.
- c) Lehiatzen den lanpostu berean egindako zerbitzuak: 0,20 puntu hilabete bakotze.

Zerbitzu eginkizunetan edo goragoko kategoriako funtzioetan eskainitako zerbitzuak benetan betetako lanpostuan zenbatuko dira.

Halaber, zerbitzu berezieta egoeran eskainitako zerbitzuak jatorrizko lanpostuan zenbatuko dira.

2) PRESTAKUNTZA, IRAKASKUNTZA ETA IKERKUNTZA (25 puntu, gehienez):

Atal honen barruan ondokoaren arabera egiaztatzen den prestakuntza baloratuko da:

a) Graduatu aurreko prestakuntza (6 puntu, gehienez):

Erizaintzako zaintza osagarrien teknikarien ikasketetan edo baliokideetan ateratako ohorezko matrikula edo bikain bakotze (honako gai hauetan ateratakoak ez dira kontuan hartuko: erlijioa, etika, heziera politikoa, heziketa fisikoa eta hizkuntza):

- Ohorezko matrikula bakotze: 0,6 puntu
- Bikain bakotze: 0,4 puntu

d) Etengabeko prestakuntza (20 puntu, gehienez):

Eskatutako destinoko kategoriarekin zerikusia duten ikastaroetara joateagatik:

9 orduko edo hortik beherako ikastaroak:	0,50 puntu
10-19 orduko	1 puntu

ikastaroak:	
20-29 orduko ikastaroak:	2 puntu
30-49 orduko ikastaroak:	3 puntu
50-99 orduko ikastaroak:	4 puntu
100-199 orduko ikastaroak:	5 puntu
200 orduko edo hortik gorako ikastaroak:	6 puntu

Ikastaroen ziurtagirietan kreditu kopurua besterik adierazten ez den kasuetan, puntuazioa emateko orduan, era honetan erabakiko da kreditu eta orduen arteko baliokidetasuna:

- ECTS Europako kreditu sistemako kreditu bakoitzeko, 25 ordu
- Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen kreditu bakoitzeko, 10 ordu

Alderantziz, kreditu eta orduen arteko baliokidetasun hori bestelakoa denean, edo ikastaroaren ziurtagirian adierazitako kredituak ez direnean aurreko atalean zehaztutako berak, edota agirian ez bada zehazten ikastaroaren iraupena edo kreditu kopurua, epaimahaiak, aurkeztu zaizkion ziurtagiriak eta ikastaroaren edukiak aztertu ondoren, dagokion puntuazioa emango dio izangaiari; betiere, 0,50ekoa edo hortik gorakoa.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek, eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarteko zientifikoek egiaztatutako/ziurtatutako ikastaroak balioztatuko dira, baita edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera eman eta egiaztatutako/ziurtatutako ikastaroak ere, betiere titulazio ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

Etengabeko prestakuntzari dagokionez –aurreko ataletan ezarritako baldintzakin bat datorrena–, 500 ordu baloratuko dira urte bakoitzeko, gehienera jota, ordutan zein kreditutan ziurtatuta daudela ere.

e) Irakaskuntza jarduera (6 puntu, gehienez):

Irakaskuntza etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan (orduko): 0,050 puntu.

f) Jarduera zientifikoak eta ezagutza hedatzekoak (10 puntu, gehienez):

Eskatutako destinoko lanpostu funtzionalarekin zerikusia duten lan zientifikoak, txosten-aurkezpenak, komunikazioak, hitzaldiak edo mahai-inguruak egiteagatik:

Txosten bakoitzeko: 2 puntu

Ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1 puntu

Mahai-inguru bakoitzeko: 1 puntu

Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu

Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu

Ez da baloratuko atal honetan zehaztu ez den merezimendurik.

h) Informatika ezagutzak (2 puntu, gehienez).

3) EUSKARA

2. HE: 18 puntu

1. HE: 9 puntu

## IV. ERANSKINA

### ERIZAIN LAGUNTZAILEEN GAI-ZERRENDA (ERIZAIN LAGUNTZAILEEN, OSASUN MENTALEKO ERIZAIN LAGUNTZAILEEN ETA OSASUN MENTALEKO BEGIRALEEN LANPOSTU FUNTZIONALAK), TEKNIKARI LAGUNTZAILE SANITARIOEN LANBIDE TALDEA

#### I. GAI-ZERRENDA OROKORRA

- 1.- Osasun sistemaren egitura. Antolaketa. Arreta mailak eta prestakuntza motak. Sailak. Dokumentu klinikoak eta ez klinikoak eta dokumentu, arau eta protokolo horiek bideratzea. Historia klinikoa.
- 2.- Osasun publikoa. Komunitateko osasuna. Osasun taldeak.
- 3.- Bilakaera historikoa. Erizaintza arretako metodoak eta prozedurak. Erizaintzako Arreta Prozesua (PAE). Erizain laguntzaileen eginkizunak.
- 4.- Pazientearen eskubideak eta betebeharrok. Sekretu profesionala.
- 5.- Bioetikaren oinarrizko printzipioak.
- 6.- Biltegiko izakinak biltegiratzea eta kontrolatzea; produktuak edo materialak kontserbatzeko eta mantentzeko araudia.
- 7.- Azalaren printzipo anatomofisiologikoa. Pazientearen higienea. Kontzeptua. Higiene osoa eta partziala. Pazienteak euren egoera aintzat hartuta sailkatzea ahalbidetzen duten irizpideen arabera.
  - Azala eta mukosak zaintza. Ahoko, begietako, sexu-organoetako eta buruko higienea. Ohatuta dauden pazienteen higienea. Paziente mugitzea.
  - Iritzia jasotzea ziri eta/edo botila baten bidez.
  - Presioak eragindako ultzerak. Etiologia. Ultzerak agertzea eragiten duten faktoreen kontzeptua. Arrisku zonak. Prebentzio neurriak. Jarreraz aldatzea eta azala zaintza.
- 8.- Sostengu eta mugimendurako printzipo anatomofisiologikoa. Mugitza eta leku batetik bestera ibiltzea. Jarreren higienea. Pazientearen oheko posizioak. Lekualdatzea eta mugitza. Ibiltzeko laguntza. Posizio anatomikoak. Istripu arriskuak prebenitzeko pazienteentzako neurriak.
- 9.- Bihotz-hodietako eta arnasketa aparatuko printzipo anatomofisiologikoa. Bizi-konstanteen eta uraren balantzearen ezaugarri fisiologikoak. Kontzeptu orokorak eta balio arruntak.
- 10.- Medikamentuak ematea. Farmakologia orokorreko printzipoak. Medikamentuak emateko bide ohikoenen ezaugarri anatomofisiologikoak.
- 11.- Bihotz-hodietako eta arnasketa aparatuko printzipo anatomofisiologikoa. Aerosolterapia eta oxigenoterapia egiteko metodoak.
  - Bihotz-arnas aparatuko nahasmenduak dituzten pazienteak zaintzen laguntzaea.



12.- Digestio-aparatuaren printzipio anatomo-fisiologikoa. Kontzeptu orokorrak, elikagaiak, ezaugarri nutritiboen araberako sailkapena, dieta arruntak eta terapeutikoak. Elikatzeko bideak: aho-ekadura eta ekadura enterala. Ohatuta dauden pazienteak elikatzeko teknikak, disfagiak, SNG.

- Zunda nasogastrikoaren bidez elikatzea. Erizaintzako zainketak. Barrua hustea hesteen bidez. Gorozkien ezaugarriak. Lagina jasotzea. Ondesteko zundaketa. Enemak, motak eta prozedurak. Ostomia.
- Urdail-hesteetako nahasmenduak dituzten pazienteak zaintzen laguntzea.
- Elikadura parenterala eta enterala. Oinarrizko printzipioak.

13.- Gernu-aparatuaren printzipio anatomo-fisiologikoa. Gernua kanporatzea. Kontzeptu orokorrak. Diuresia. Gernuaren ezaugarriak. Lagina jasotzea. Prozedurak. Zundaketak. Zainketetan laguntzea.

14.- Hil ondorengo zainketak. Hilotzaren azken xedea eta prestaketa.

15.- Lehen sorospenak. Lehen sorospenei aplikatutako printzipio anatomo-fisiologikoa. Urgentzia eta lehentasunerako irizpideak. Traumatismoak. Bihotz-birikak berpizteko teknikak, asfixiak, bihotz-amasaren geldialdia.

16.- Oinarrizko zainketak gizakien bizitzako zikloaren etapa guzietan: Bularreko haurrak eta eskolako garaikoak. Helduak. Haurdunaldia eta edoskitzaroa. Zahartzea.

- Erizaintza zainketak unitate berezieta. Pediatría, geriatría, ginecología, neurología eta cirugía.

17.- Material sanitarioak garbitzea, desinfektatzea eta esterilizatzea. Kontzeptuak: Oinarrizko printzipioak. Desinfektatzeko metodoak. Esterilizatzeko metodoak. Materiala esterilizatzeko prestatzea.

18.- Infekzioa. Kontzeptu orokorrak. Infekzio-iturriak. Isolamendua: kontzeptua. Motak. Infekzioak prebenitza. Eskuak garbitzea. Neurri estandarrak. Airearen, tanten eta kontaktuaren bidez transmisiua saihesteko neurriak. Infekzio nosokomiala.

19.- Laginak manipulatzea. Hondakin sanitarioak deuseztatzea. Jatorri biologikoaren arabera laginak jaso eta garraitzea.

20.- Psikologia orokor eta ebolutiboaren funtsak. Ezaugarri bereziak dituzten pazienteen jokabideetan disfuntzioak eragin ditzaketen egoera psikologikoak. Garapen ebolutibo eta afektiboa. Nortasunaren garapenari buruzko teoria psikologikoak.

21.- Komunikazio/bihozberatasuna. Kontzeptua. Komunikazio prozesua eta komunikazio eta harreman motak. Osasun arloko komunikazioaren faktoreak eta eragozpenak.

22.- Osasuna eta gaixotasuna; ingurune fisiko, sozial eta kulturalaren eragina; gaixotu izanaren ondorio nagusiak.

23.- Erizaintzako laguntaileak (osasun arloko profesionalak). Diziplina anitzekoak. Erizain laguntaileen eginkizunak. Gaitasunak eta jokabideak.

24.- Egoera berezian dauden pazienteen egoera psikologikoak. Mina eta giza oinazea, gaixotasunaren bizipenak. Pazienteak bere gaixotasunaren subjektu gisa. Gaixotasunaren eta oinazearen ondoriozko erreakzioak.

25.- Osasun hezkuntza. Osasuna sustatzea. Gaixotasunaren prebentzioa eta osasun hezkuntza. Programa terapeutikoak.

26.- Nahasmendu psikikoak dituzten pazienteentzako arreta. Osasun mentala. Buruko nahasmendua. Buruko nahasmenduen sailkapena. Buruko nahasmendua dituzten pazienteak ospitaleratzea eta erizain laguntzailearekiko harremana.

27. Laneko osasuna. Kontzeptua. Laneko giro-baldintzak eta baldintza fisikoak. Arrisku biologikoko istripuak: ergonomia, prebentzio neurriak. Gaixoak mugitzeko metodoak.

28. Medikamentuak emateko bideak: ahotik, ondestetik eta bide topikotik. Neurriak.

29. Genero indarkeria. Tratu txarrei aurreko egiteko protokoloa.

## II. GAI-ZERRENDA KOMUNA

1.- Euskadiko Osasun Antolamenduko Xedapen Orokorrak: Euskal Autonomia Erkidegoan osasuna babesteko eskubidearen arloko eremu subjektiboa eta eduki materiala. Euskadiko Osasun Sistema: Euskadiko osasun sistemaren eraketa. Printzipio informatzaileak. Herritarren eskubide eta betebeharra.

2.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren definizioa. Xedeak. Zuzendaritza-antolakuntza: zerrenda.

3.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko paziente eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharra.

4.- Eusko Legebiltzarraren 7/2002 Legea, abenduaren 12koa; Borondate aurreratuak osasun-eremuan.

5.- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa. Datuak babestearen printzipioak.

6.- Osasun Sailaren Ildo Estrategikoak. 2013-2016.

7.- Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak. 2013-2020.

8.- Lerro estrategikoak eta ekintza-planak. Osakidetza. 2013-2016.

9.- Pazientearen Segurtasunaren Estrategia. Osakidetza. 2013-2016.

10.- Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak. 2013-2016.

11.- Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko II. Plana. 2013-2019.

## GAI-ZERRENDA OROKORRAREN BIBLIOGRAFIA

1. SÁNCHEZ GONZÁLEZ M.Á.: *Bioética en Ciencias de la Salud*, Elsevier Masson, 2012.
2. PÉREZ DE LA PLAZA, Evangelina; FERNÁNDEZ ESPINOSA, Ana Mª.: *Técnicas básicas de enfermería*, Mc Graw Hill (erdi mailako heziketa zikloa).
3. LÓPEZ SAN MIGUEL, Ángeles; FERNÁNDEZ-VILLACAÑAS MARTÍN, Dolores: *Higiene del medio hospitalario y limpieza del material*, Mac Millan profesional (erdi mailako heziketa zikloa).
4. BALLANO, F.; ESTEBAN, A.: *Promoción de salud y apoyo psicológico al paciente*, Editex (erdi mailako heziketa zikloa).
5. GARCÍA GÓMEZ, María Luisa; SIMÓN SAIZ, Mª. José; LANDETE LÓPEZ, Emilio: *Operaciones Administrativas y Documentación Sanitaria*, Mc Graw Hill (erdi mailako heziketa zikloa).
6. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko pazienteen eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren karta (175/1989 Dekretua).
7. 41/2002 14 Legea, azaroaren 14koa; informazio eta dokumentazio klinikoaren arloan pazientearen autonomia eta eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen oinarritzko legea.
8. INOZ Batzordea: *Infekzio Nosokomiala kontrolatzeko arauen eskuliburua*, I. eranskina, Osakidetza, 1997.
9. Prebentzioko eta Laneko Osasuneko Zerbitzua, Osakidetza. Informazio-eskuliburua. Osakidetzako langileentzako arrisku orokorrak, 2008 (gaztelaniaz).
10. Genero indarkeria. Tratu txarrei aurre egiteko protokoloa. Eskuragarri hemen: <https://www.osakidetza.net/sites/Intranet/eu/salud-atencion/poblacion-especifica/Orriak/violencia-genero.aspx>

## GAI-ZERRENDA KOMUNAREN BIBLIOGRAFIA

1.- 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa (4, 5, 6, 10 eta 11 art.).

2.- 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Estatutu Sozialak ezartzen dituena (1, 3 eta 6 art.).

3.- 175/1989, Dekretua, uztailaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko paziente eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren karta onartzen duena (1, 2, 3 eta 4 art.).

4.- Eusko Legebiltzarraren 7/2002 Legea, abenduaren 12koa; Borondate aurreratuak osasun-eremuan (1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7 art.).

5.- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa (4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11 eta 12 art.).

6.- Osasun Sailaren Ildo Estrategikoak. 2013-2016.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/eu\\_pub/adjuntos/lineas\\_estrategicas\\_%20eusker.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/lineas_estrategicas_%20eusker.pdf)

7.- Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak. 2013-2020.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/eu\\_pub/adjuntos/osasun\\_plana\\_2013\\_2020.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/osasun_plana_2013_2020.pdf)

8.- Lerro estrategikoak eta ekintza-planak. Osakidetza. 2013-2016.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85\\_pkpubl02/eu/contenidos/informacion/osk\\_publicaciones/eu\\_argital/adjuntos/estrategia/llerroEstrategikoakOsakidetza.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85_pkpubl02/eu/contenidos/informacion/osk_publicaciones/eu_argital/adjuntos/estrategia/llerroEstrategikoakOsakidetza.pdf)

9.- Pazientearen Segurtasunaren Estrategia. Osakidetza. 2013-2016.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk\\_publicaciones/eu\\_argital/adjuntos/publikoa/SeguridadPacienteEu.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_publicaciones/eu_argital/adjuntos/publikoa/SeguridadPacienteEu.pdf)

10.- Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak. 2013-2016.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/eu\\_pub/adjuntos/l\\_e\\_sociosanitarias\\_eu.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/l_e_sociosanitarias_eu.pdf)

11.- Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko II. Plana. 2013-2019.

[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_euskera/eu\\_ostk/adjuntos/euskararenPlanaEu.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_euskera/eu_ostk/adjuntos/euskararenPlanaEu.pdf)

@@@RESOLUCIÓN 1145/2015, de 28 de mayo, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se aprueban las bases específicas que han de regir el proceso selectivo para la adquisición del vínculo estatutario fijo en la categoría de Auxiliar Enfermería (puestos funcionales de Auxiliar Enfermería, Auxiliar Enfermería Salud Mental y Monitor Salud Mental) del Grupo Profesional de Técnicos auxiliares Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.@@@

Mediante Resolución 1135/2015, de 28 de mayo, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se han aprobado las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud convocados en los años 2014 y 2015.

Para la materialización de cada proceso selectivo es necesaria la publicación de las bases específicas que han de regir la convocatoria de destinos de cada categoría.

Por ello, de conformidad con lo establecido en la Ley 8/1997, de 26 de junio de Ordenación Sanitaria de Euskadi, la Ley 55/2003, de 16 de diciembre, del Estatuto Marco del personal estatutario de los servicios de salud, la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, el Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, y en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, y demás disposiciones de vigente aplicación.

**RESUELVO:**

Primero.- Convocar las pruebas selectivas que son objeto de las presentes bases.

Segundo.- Aprobar las bases específicas, que figuran como Anexo I, que han de regir el proceso selectivo para la adquisición del vínculo estatutario fijo en la categoría de Auxiliar Enfermería (puestos funcionales de Auxiliar Enfermería, Auxiliar Enfermería Salud Mental y Monitor Salud Mental) del Grupo Profesional de Técnicos auxiliares Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Tercero.- Aprobar la relación de destinos ofertados mediante el Anexo II que acompaña a la presente Resolución.


Cuarto.- Aprobar el baremo de méritos que figura como Anexo III de la presente Resolución.

Quinto.- Aprobar el temario correspondiente que figura como Anexo IV de la presente Resolución.

Sexto.- De acuerdo con lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y en la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, así como en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales de Osakidetza, contra esta Resolución podrá ser interpuesto recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de mayo de 2015.

El Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud  
**JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ**



## ANEXO I

**BASES ESPECÍFICAS QUE HAN DE REGIR EL PROCESO SELECTIVO PARA LA ADQUISICIÓN DEL VÍNCULO ESTATUTARIO FIJO EN LA CATEGORÍA DE AUXILIAR ENFERMERÍA (PUESTOS FUNCIONALES DE AUXILIAR ENFERMERÍA, AUXILIAR ENFERMERÍA SALUD MENTAL Y MONITOR SALUD MENTAL) DEL GRUPO PROFESIONAL DE TÉCNICOS AUXILIARES SANITARIOS CON DESTINO EN LAS ORGANIZACIONES DE SERVICIOS SANITARIOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD.**

### 1.- DESTINOS OBJETO DE CONVOCATORIA.

1.1.- Son objeto de esta convocatoria los destinos de la categoría de Auxiliar Enfermería (puestos funcionales de Auxiliar Enfermería, Auxiliar Enfermería Salud Mental y Monitor Salud Mental) del Grupo Profesional de Técnicos auxiliares Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, recogidos en el Anexo II.

1.2.- De los destinos convocados, se reservan para su provisión por personal discapacitado el 7%, de conformidad con la distribución establecida en la base 1.3. de las bases generales, recogidos en el Anexo II.

### 2.- REQUISITOS DE LAS PERSONAS ASPIRANTES:

Para participar en el proceso que aquí se regula, las personas aspirantes habrán de reunir al último día del plazo de presentación de solicitudes, salvo las excepciones que se prevean en las bases generales, debiendo mantener su cumplimiento hasta efectuar la toma de posesión del destino que, en su caso, se adjudique, además de los requisitos exigidos en las bases generales, los siguientes:

a) Estar en posesión o en condiciones de obtener la titulación de Técnico en Cuidados Auxiliares de Enfermería o equivalente, expedida por el Ministerio de Educación y Ciencia, de conformidad con lo dispuesto en el Anexo I del Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza.

b) En todo caso, deberán cumplirse los requisitos del puesto al que se opte, según lo dispuesto en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, así como cualesquiera otros establecidos por la normativa vigente.

c) Haber satisfecho los siguientes derechos de inscripción dentro del plazo de presentación de solicitudes, conforme al Grupo de titulación al que pertenezcan los destinos ofertados:

Grupo C2 (antiguo grupo D): 15 euros.

### 3.- DESARROLLO DEL CONCURSO OPOSICIÓN.

#### 3.1.- Fase de oposición.

Corresponderá al tribunal determinar el contenido de la prueba y su duración. La misma consistirá en la contestación por escrito en el plazo máximo que se fije, de un cuestionario de preguntas que versará sobre las materias del programa que se contiene en el Anexo IV, relativo al temario general y al temario común.

Asimismo, mediante su inclusión en el citado Anexo, se facilitará la bibliografía para la preparación de la prueba.

3.2.- Tras la publicación de la relación provisional de aspirantes por orden de puntuación prevista en el apartado 14 de las bases generales las personas aspirantes propuestas que figuren en el Anexo I deberán presentar fotocopia compulsada, además de la documentación que se relaciona en la base 14.2, de la siguiente:

- Fotocopia compulsada o testimonio notarial de la titulación de Técnico en Cuidados Auxiliares de Enfermería o equivalente, expedida por el Ministerio de Educación y Ciencia, de conformidad con lo dispuesto en el Anexo I del Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza.

3.3.- Fase de concurso.

Se valorarán los méritos acreditados, según el baremo de méritos que se acompaña como Anexo III, conforme a los criterios establecidos en las bases generales.

## ANEXO II

### RELACIÓN DE DESTINOS. CATEGORÍA: AUXILIAR DE ENFERMERIA

Conforme a lo previsto en la base 1 de las Bases Generales aprobadas por Resolución 1135/2015, de 28 de mayo, del Director General de Osakidetza, se convocan los siguientes destinos:

- Convocatoria de Turno de Promoción Interna: 122 destinos

Acceso general: 114

Cupo de reserva para personas con discapacidad: 8

    Con discapacidad intelectual: 3

    Con otra discapacidad: 5

- Convocatoria de Turno Libre: 70 destinos

Acceso general: 65

Cupo de reserva para personas con discapacidad: 5

    Con discapacidad intelectual: 3

    Con otra discapacidad: 2

En el supuesto de que los destinos reservados a personas con discapacidad intelectual no puedan cubrirse por falta de candidatos/as que superen el proceso selectivo, dichos destinos acrecerán al cupo de reserva de personal con discapacidad.

En el supuesto de que los destinos reservados a personas con discapacidad no puedan cubrirse por falta de candidatos/as que superen el proceso selectivo, dichos destinos acrecerán a los de acceso general del turno correspondiente, promoción interna o turno libre.

De acuerdo con lo establecido en la base 2 la determinación de los destinos en las organizaciones de servicios sanitarios objeto de esta convocatoria, se hará junto con la publicación de la relación provisional de aspirantes que han superado el proceso selectivo.

### ANEXO III

#### BAREMO DE MERITOS DE LA CATEGORÍA DE AUXILIAR ENFERMERIA DEL GRUPO PROFESIONAL DE TÉCNICOS AUXILIARES SANITARIOS

##### 1) EXPERIENCIA PROFESIONAL: máximo 55 puntos.

Se computará el tiempo de servicios que las personas aspirantes tuvieran reconocido hasta el último día del plazo de presentación de solicitudes.

Del cómputo total, que se efectuará en base a los días naturales trabajados, se despreciarán los restos que resulten inferiores al mes. A estos efectos se entenderá por mes el conjunto de 30 días naturales.

1.- Por cada mes de servicios prestados como Auxiliar de Enfermería en las Organizaciones de Servicios Sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de la Seguridad Social o de los Servicios de Salud de las Comunidades Autónomas o en cualquier Administración Pública, así como aquéllos servicios prestados en los Servicios Sanitarios de la red pública de los demás estados miembros de la Unión Europea: 0,20 puntos.

Al personal que acceda a través del turno de promoción interna se le computarán los servicios previos conforme a continuación se detalla:

- a) Servicios prestados por personal en el grupo E: 0,07 puntos/mes
- b) Servicios prestados por personal en el grupo D: 0,11 puntos/mes
- c) Servicios prestados en el mismo puesto al que se opta: 0,20 puntos/mes

Los servicios prestados en comisión de servicios o desempeño de funciones de superior categoría se computarán en el puesto efectivamente desempeñado.

Asimismo se computarán en el puesto de origen los servicios prestados en situación de servicios especiales.

##### 2) FORMACIÓN, DOCENCIA E INVESTIGACIÓN (máximo 25 puntos):

Se valorará dentro de este apartado la formación que resulte acreditada conforme a lo siguiente:

###### a) Formación pregrado (Máximo 6 puntos):

Por cada matrícula de honor o sobresaliente durante los estudios de Técnico en Cuidados Auxiliares de Enfermería o equivalente (no se deben considerar como asignaturas valorables: religión, ética, formación política, educación física e idioma):

- por cada matrícula de honor: 0,6 puntos
- por cada sobresaliente: 0,4 puntos

###### d) Formación continuada (máximo 20 puntos):

Por la asistencia a cursos relacionados con la categoría del destino solicitado:

Hasta 9 horas:	0,50 puntos
10 a 19 horas:	1 punto
20 a 29 horas:	2 puntos
30 a 49 horas:	3 puntos
50 a 99 horas:	4 puntos
100 a 199 horas:	5 puntos
200 o más horas:	6 puntos

Cuando en las certificaciones de los cursos conste únicamente el número de créditos, para la asignación de la puntuación se efectuará la siguiente equivalencia:

- 1 crédito del Sistema Europeo de Créditos (ECTS): 25 horas
- 1 crédito de la Comisión de Formación Continuada: 10 horas

En aquellas certificaciones en las que no conste el número de horas de duración del curso ni se asignen créditos, o disponiendo de créditos, estos sean diferentes a los especificados en el párrafo anterior, o se establezca otra equivalencia de los créditos en horas, el tribunal, a la vista de la certificación aportada y del contenido del curso, asignará la puntuación correspondiente sin que en ningún caso pueda otorgar una puntuación inferior a 0,50 puntos.

Se valorarán los cursos acreditados/certificados por Organismos Oficiales, Universidades, Instituciones Sanitarias, y en su caso, Colegios Profesionales y Sociedades Científicas, así como los cursos impartidos y acreditados/certificados en virtud de los Acuerdos de Formación Continua suscritos por cualquier Administración Pública, siempre que no formen parte de un plan de estudios para la obtención de una titulación oficial.

Se podrá valorar como máximo 500 horas anuales de formación continuada, certificadas en horas o créditos, que reúna los requisitos establecidos en los apartados anteriores.

e) Actividades Docentes (máximo 6 puntos):

Docencia en programas oficiales de formación continuada (por cada 1 hora): 0,050 puntos.

f) Actividades científicas y de difusión del conocimiento (máximo 10 puntos):

Por la publicación de trabajos científicos, presentación de ponencias, comunicaciones, conferencias o mesas redondas relacionadas con el puesto funcional del destino solicitado:

Por cada Ponencia: 2 puntos

Por cada Comunicación oral/Póster: 1 punto


Por cada Mesa redonda: 1 punto

Por cada Publicación (primer autor/a): 2 puntos

Por cada Publicación (otros autores): 1 punto

No se valorarán otros méritos no especificados en este apartado.

h) Conocimientos de informática (máximo 2 puntos).



3) EUSKERA.

PL2: 18 puntos

PL1: 9 puntos

## ANEXO IV

### **TEMARIO DE AUXILIAR ENFERMERÍA (PUESTOS FUNCIONALES DE AUXILIAR ENFERMERÍA, AUXILIAR ENFERMERÍA SALUD MENTAL Y MONITOR SALUD MENTAL) DEL GRUPO PROFESIONAL DE TÉCNICOS AUXILIARES SANITARIOS**

#### I. TEMARIO GENERAL

- 1.-Estructura del sistema sanitario, Organización, Niveles de asistencia y tipos de prestaciones, Departamentos. Documentos clínicos y no clínicos y tramitación de dichos documentos, normas y protocolos. Historia Clínica.
- 2.- Salud Pública. Salud Comunitaria. Equipos de salud.
- 3.-Evolución histórica. Métodos y procedimientos de atención de enfermería. Proceso de Atención de Enfermería (PAE.) Funciones del auxiliar de Enfermería.
- 4.- Derechos y deberes del paciente. Secreto profesional.
- 5.- Principios fundamentales de bioética.
- 6.- Almacenamiento y control de existencias de un almacén, normativa de conservación y mantenimiento de productos o materiales.
- 7.- Principio anatomofisiológicos de la piel Higiene del paciente, Concepto. Higiene total y parcial. Según criterios que permitan clasificar a los pacientes según su estado o y/o situación del mismo.
  - Cuidado de la piel y mucosas. Higiene de la boca, ojos, genitales, cabeza. Higiene del paciente encamado. Movilización del paciente.
  - Recogida de excretas con utilización de cuña y/ botella.
  - Ulceras por presión. Etiología. Concepto factores que favorecen la aparición. Zonas de riesgo. Medidas de prevención. Cambios posturales y cuidados de la piel.
- 8.- Principio anatomofisiológicos de sostén y movimiento. Movilización y deambulación. Higiene postural. Posiciones del paciente en cama. Traslados y movilizaciones. Ayuda para caminar. Posiciones anatómicas. Medidas de prevención de riesgo de accidente para el paciente.
- 9.- Principio anatomofisiológicos del aparato cardiovascular y respiratorio. Características fisiológicas de las constantes vitales y balance hídrico. Conceptos generales y valores normales.
- 10.- Administración de medicación. Principios de farmacología general. Características anátomo - fisiológicas de las vías más frecuentes de administración de fármacos.
- 11.- Principio anatomofisiológicos del aparato cardiovascular y respiratorio. Métodos de administración de aerosolterapia oxigenoterapia.
  - Colaboración en los cuidados del paciente con trastornos cardiorrespiratorios.

12.- Principio anatomofisiológicos del aparato digestivo. Conceptos generales, alimentos, clasificación según sus características nutritivas, dietas normales y terapéuticas. Vías de alimentación oral y enteral. Técnicas para alimentación a paciente encamado, disfagias, SNG.

- Alimentación por sonda nasogástrica, Cuidados de Enfermería. Eliminación intestinal, características de las heces. Recogida de muestra. Sondaje rectal, Enemas, tipos y procedimientos. Ostomía.
- Colaboración en los cuidados del paciente con trastornos gastrointestinales.
- Nutrición parenteral y enteral. Principios fundamentales.

13.- Principio anatomofisiológicos del aparato urinario. Eliminación urinaria. Conceptos generales. Diuresis. Características de la orina. Recogida de muestras. Procedimientos. Sondajes. Colaboración en los cuidados.

14.- Cuidados post mortem. Finalidad y preparación del cadáver.

15.- Primeros auxilios. Principio anatomofisiológicos aplicados a los primeros auxilios. Criterios de urgencia y prioridad. Traumatismos. Técnicas de reanimación cardiopulmonar, asfixias, parada cardiorrespiratoria.

16.- Cuidados básicos de las necesidades humanas en las distintas etapas del ciclo vital: Lactante y escolar. Adulto. Embarazo y lactancia. Envejecimiento.

- Cuidados de Enfermería en unidades específicas. Pediatría, Geriatría, Ginecología, Neurología y Cirugía.

17.- Limpieza, desinfección y esterilización del material sanitario. Conceptos. Principios básicos. Métodos de desinfección. Métodos de esterilización. Preparación del material para esterilización.

18.- Infección. Conceptos generales. Fuentes de infección Aislamiento: Concepto. Tipos. Prevención de las infecciones. Lavado de manos. Precauciones estándar. Precauciones de transmisión aérea, por gotas y por contacto. Infección nosocomial.

19.- Manipulación de muestras. Eliminación de residuos sanitarios. Recogida y transporte de muestras según su origen biológico.

20.- Fundamentos de la psicología general y evolutiva. Circunstancias psicológicas que pueden provocar disfunciones de comportamiento en pacientes con condiciones especiales. Desarrollo evolutivo y afectivo. Teorías psicológicas sobre el desarrollo de la personalidad.

21.- Comunicación/Humanización. Concepto, El proceso de comunicación, y estilos de comunicación y relación. Factores y obstáculos en la comunicación sanitaria.

22.- Salud y enfermedad, influencia del medio físico, social y cultural, efectos generales del hecho de enfermar.

23.- El auxiliar de Enfermería profesional sanitario. Multidisciplinariedad. Funciones del auxiliar de Enfermería. Aptitudes y actitudes.

24.- Estados psicológicos de los pacientes en situaciones especiales. El dolor y el sufrimiento humano, la vivencia de la enfermedad. El paciente como sujeto de su

enfermedad. Reacciones a la enfermedad y al sufrimiento.

25.- Educación sanitaria. Promoción de salud. Prevención de la enfermedad y Educación para la salud. Programas terapéuticos.

26.- Atención al paciente con trastornos psíquicos, Salud Mental. Trastornos mentales. Clasificación de los trastornos mentales. Hospitalización de los pacientes con trastornos mentales y la relación con el auxiliar de enfermería.

27. Salud Laboral. Concepto. Condiciones físico-ambientales del trabajo. Accidentes de riesgo biológico: Ergonomía, Médicas de prevención. Métodos de movilización de enfermos.

28. Vías de administración de medicamentos. Oral, rectal y tópica. Precauciones.

29. Violencia de género. Protocolo de actuación ante los malos tratos.

## II. TEMARIO COMUN

1.- Disposiciones Generales de Ordenación Sanitaria de Euskadi: Ámbito subjetivo y contenido material del derecho a la protección de la salud en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Sistema Sanitario de Euskadi: Configuración del sistema sanitario de Euskadi, Principios informadores, Derechos y deberes de los ciudadanos.

2.- Definición del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud. Fines. Organización rectora: enumeración.

3.- Derechos y obligaciones de los pacientes y usuarios del Servicio vasco de salud-Osakidetza.

4.- Ley 7/2002, de 12 de diciembre, del Parlamento Vasco, de las Voluntades Anticipadas en el ámbito de la sanidad.

5.- La Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal. Principios de la protección de datos.

6.- Líneas Estratégicas del Departamento de salud 2013-2016.

7.- Plan de Salud. Políticas de Salud para Euskadi 2013-2020.

8.- Líneas Estratégicas y Planes de Acción de Osakidetza 2013-2016.

9.- Estrategia de Seguridad del Paciente en Osakidetza 2013-2016.

10.- Líneas Estratégicas de Atención Sociosanitaria de Euskadi 2013-2016

11.- 2º Plan de normalización del uso del euskera en Osakidetza 2013-2019.

## BIBLIOGRAFIA DEL TEMARIO GENERAL

1. Sánchez González M. Á., Bioética en Ciencias de la Salud. Editorial Elsevier Masson 2012.
2. Técnicas básicas de enfermería. Evangelina Pérez De La Plaza y Ana Mª. Fernández Espinosa. Editorial Mc Graw Hill. (Ciclo formativo grado medio).
3. Higiene del medio hospitalario y limpieza del material. Ángeles López San Miguel, Dolores Fernández Villacañas Martín. Editorial Mac Millan profesional (Ciclo formativo grado medio).
4. Promoción de Salud y Apoyo Psicológico al paciente. F. Ballano y A Esteban. Editorial Editex. (Ciclo formativo grado medio).
5. Operaciones Administrativas y Documentación Sanitaria. María Luisa García Gómez, Mª. José Simón Saiz. Emilio Landete López. Editorial Mc Graw Hill. (Ciclo formativo grado medio).
6. Carta de derechos y obligaciones de los pacientes y usuarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud (Decreto 175/1989).
7. Ley 41/2002, de 14 de noviembre, básica reguladora de la autonomía del paciente y de derechos y obligaciones en materia de información y documentación clínica.
8. Manual de Normas para el control de la Infección Nosocomial. Anexo1. Comisión INOZ Osakidetza. 1997.
9. Servicio de Prevención-Salud Laboral de Osakidetza. Manual Informativo. Riesgos Generales para los trabajadores de Osakidetza, 2008.
10. Violencia de género. Protocolo de actuación ante los malos tratos. Disponible en:  
<https://www.osakidetza.net/sites/Intranet/es/salud-atencion/poblacion-especifica/Paginas/violencia-genero.aspx>

## BIBLIOGRAFIA TEMARIO COMUN

- 1.- Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi. (art. 4, 5, 6, 10 y 11).
- 2.- Decreto 255/1997, de 11 de noviembre por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud (art. 1, 3, 6).
- 3.- Decreto 175/1989, de 18 de julio, por el que se aprueba la carta de derechos y obligaciones de los pacientes y usuarios del Servicio vasco de salud-Osakidetza (art. 1, 2, 3 y 4).
- 4.- Ley 7/2002, de 12 de diciembre, del Parlamento Vasco, de las Voluntades Anticipadas en el ámbito de la sanidad (art. 1, 2, 3, 4, 5, 6 y 7).
- 5.- La Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal (art. 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11 y 12).
- 6.- Líneas Estratégicas del Departamento de salud 2013-2016  
[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/es\\_pub/adjuntos/lineas\\_estrategicas\\_%20castellano.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/es_pub/adjuntos/lineas_estrategicas_%20castellano.pdf)
- 7.- Plan de Salud. Políticas de Salud para Euskadi 2013-2020  
[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/es\\_pub/adjuntos/plan\\_salud\\_2013\\_2020.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/es_pub/adjuntos/plan_salud_2013_2020.pdf)
- 8.- Líneas Estratégicas y Planes de Acción de Osakidetza 2013-2016  
[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk\\_publicaciones/es\\_publi/adjuntos/estrategia/lineasEstrategicasOsakidetza.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_publicaciones/es_publi/adjuntos/estrategia/lineasEstrategicasOsakidetza.pdf)
- 9.- Estrategia de Seguridad del Paciente en Osakidetza 2013-2016  
[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk\\_publicaciones/es\\_publi/adjuntos/publica/SeguridadPacienteEs.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_publicaciones/es_publi/adjuntos/publica/SeguridadPacienteEs.pdf)
- 10.- Líneas Estratégicas de Atención Sociosanitaria de Euskadi 2013-2016  
[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/es\\_pub/adjuntos/l\\_e\\_sociosanitarias\\_es.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/es_pub/adjuntos/l_e_sociosanitarias_es.pdf)
- 11.- 2º Plan de normalización del uso del euskera en Osakidetza 2013-2019.  
[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_euskera/es\\_ostk/adjuntos/euskararenPlanaEs.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_euskera/es_ostk/adjuntos/euskararenPlanaEs.pdf)